



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

ANTZERKIA TEATRO DANTZA MUSIKA

**UDA
VERANO
2025**



UZTAILA JULIO

Uztaila **02 - 06** Julio

NORTASUN AGIRIA

ZUHAITZ GURRUTXAGA

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 04 Orr.

Uztaila **03 - 06** Julio

INMADUROS

CARLOS SOBERA, ÁNGEL

PARDO, ELISA MATILLA, LARA

DIBILDOS

Victoria Eugenia

 Pág. 05 Orr.

Uztaila **08 - 13** Julio

BADAKIZU PLASTIKOZKO

LOREAK EZ DIRELA INOIZ BIZI

IZAN, EZTA?

SABES QUE LAS FLORES

DE PLÁSTICO NUNCA HAN

VIVIDO, ¿VERDAD?

AITZIBER GARMENDIA, TELMO

IRURETA, MIREIA GABILONDO

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 06 Orr.

Uztaila **10 - 13** Julio

ACERO 2.0

MAGO ORBIT

Victoria Eugenia

20:00

 Pág. 07 Orr.

Uztaila **15** Julio

EGO

EUSKAL HERRIKO

GAZTE ORKESTRA

Victoria Eugenia

 Pág. 08 Orr.

Uztaila **16** Julio

MARCUS KING BAND

2025 EUROPEAN TOUR

Victoria Eugenia

 Pág. 09 Orr.

Uztaila **19-27** Julio

60. DONOSTIAKO JAZZALDIA

Trinitate plaza, Kursaal, Victoria

Eugenia, San Telmo Museoa,

Chillida Leku...

 Pág. 10 Orr.

Uztaila **30 - 31** Julio

QUERIDA AGATHA CHRISTIE

JUAN CARLOS RUBIO

CARMEN MORALES

JUAN MESEGUER

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 11 Orr.

Uztaila **31** Julio

URTAROAK

LAS ESTACIONES

LES SAISONS

MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Victoria Eugenia

 Pág. 12 Orr.

ABUZZTUA AGOSTO

Abuztua **01 - 03** Agosto

QUERIDA AGATHA CHRISTIE

JUAN CARLOS RUBIO

CARMEN MORALES

JUAN MESEGUER

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 11 Orr.

Abuztua **01 - 03** Agosto

URTAROAK

LAS ESTACIONES

LES SAISONS

MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Victoria Eugenia

 Pág. 12 Orr.

Abuztua **06 - 10** Agosto

TESTIGO DE CARGO

(AGATHA CHRISTIE)

FERNANDO GUILLÉN CUERVO

ADOLFO FERNÁNDEZ

NEREA MAZO

Victoria Eugenia

 Pág. 13 Orr.

Abuztua **06 - 10** Agosto

EL CABARET DE

LOS HOMBRES PERDIDOS

ISRAEL REYES

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 14

Abuztua **11 - 17** Agosto

ALMACENADOS

ALMAZENEAN

ZUHAITZ GURRUTXAGA

IKER GALARTZA

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 15 Orr.

Abuztua **13 - 17** Agosto

PIJAMA PARA SEIS

GABINO DIEGO

JESÚS CISNEROS

AMAIA VARGAS

ISABEL GAUDÍ

Victoria Eugenia

 Pág. 16 Orr.

Abuztua **18 - 24** Agosto

¡AY DIOS! AHORA VENGO A POR TI

ÓSCAR TEROL

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 17 Or

Abuztua **21 - 24** Agosto

ESCAPE ROOM

JOSEP MANEL CASANY

CRISTINA GARCÍA, XAVI MIRA

LARA SALVADOR

Victoria Eugenia

 Pág. 18 Or

Abuztua **27 - 31** Agosto

CAMINO A LA MECA

LOLA HERRERA, NATALIA

DICENTA, CARLOS OLALLA

Victoria Eugenia

 Pág. 19 Orr.

Abuztua **28 - 31** Agosto

UNA HERMANA PARA TRES HERMANOS

PABLO PUYOL, VIRGINIA

MUÑOZ, MIGUEL Á. MARTÍN,

NOEMÍ RUIZ

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 20 Orr.

IRAILA SEPTIEMBRE

Iraila **03 - 07** Septiembre

SE ALQUILA

ANDONI FERREÑO

AGUSTÍN BRAVO

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 21 Orr.

Iraila **05 - 07** Septiembre

SÓLO WHITNEY

CRISTINA RAMOS

Victoria Eugenia

 Pág. 22 Orr.

Iraila **08 - 14** Septiembre

ARIZONA

AITZIBER GARMENDIA

JON PLAZAOLA

Antzoki Zaharra T. Principal

 Pág. 23 Orr.

Iraila **13-14** Septiembre

LOS GAVILANES

SASIBILL

Victoria Eugenia

 Pág. 24 Orr.

Iraila **26** Septiembre

HAYDEN PEDIGO

Dkluba

Imanol Larzabal (Lugaritz)

 Pág. 25 Orr.

LASTER PRÓXIMAMENTE

Urria **02** Octubre

THE DELINES

MR. LUCK & MS. DOOM

Victoria Eugenia

 Pág. 26 Orr.

Azaroa **20** Noviembre

DESTROYER

DAN'S BOOGIE

Victoria Eugenia

 Pág. 26 Orr..

Otsaila **07** Febrero / **2026**

PACO IBÁÑEZ

ÉRASE UNA VEZ

Victoria Eugenia

 Pág. 26 Orr.



NORTASUN AGIRIA

ZUHAITZ GURRUTXAGA

Uztaila **02 - 06** Julio

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

26 € / 20 €

 euskara

Nortasun agiria Zuhaitz Gurrutxagaren hirugarren bakarkako lana da. Aurrekoetan bezala, oraingo honetan ere egiazko bizipen pertsonaletan oinarrituko da eta, besteak beste, bikote harremanen hausturak, euskaldun ona izatera iristeko zailtasunaz edota Nahasmendu Obsesibo Konpultsiboaren gaitza pairatzeak sexu harremanetan eragin ditzakeen buruhausteaz ariko da.

Nortasun agiria es el tercer trabajo en solitario de Zuhaitz Gurrutxaga. Al igual que en ocasiones anteriores, en esta ocasión también se centrará en vivencias personales reales y se referirá, entre otras cosas, al dolor generado por las rupturas de las relaciones de pareja, a la dificultad de llegar a ser buen vasco, o a los quebraderos de cabeza que puede provocar en las relaciones sexuales sufrir el TOC (Trastorno Obsesivo Compulsivo).



INMADUROS

CARLOS SOBERA, ÁNGEL PARDO,
ELISA MATILLA, LARA DIBILDOS

Uztaila **03 – 06** Julio

Victoria Eugenia

20:00

29 € / 24 € / 20 €

● castellano

Alfi eta Fideo betiko lagunak dira, izaera zeharo ezberdina badute ere: Alfi aspaldi banandutako publizista bat da, ia inoiz ikusten ez duen seme bat duena eta harreman afektibo orori ihes egiten diona, Alexa bere etxe adimendunarekin duen harremanari salbu... Fideo, aldiz, bere ohitura eta afektuekin izugarri kontserbadorea den psikiatra bat da, 25 urte baino gehiago daramatzana izan zuen lehendabiziko neska-lagunarekin ezkondu-ta. Gau batean, banandu eta gutxira, Fideo Alfi ikustera joango da kontso-lamendu pixka bat bilatzeko asmoz. Fideori laguntze aldera Alfik Fideori emakumezkoak aurkezteko plan bat prestatzen du, Fideok gogoz kontra onartzen duena. Horiek horrela, benetako lau emakumeren eta emakume birtual baten eskutik, emakumeek euren bizitzetan izandako leku zentrala deskubrituko dute bi lagunek.

Inmaduros gizakiak harremanak izateko dituen modu berri eta askotarikoen inguruko hausnarketa komikoa da.

Silvia Vacas eta **Arianna Aragón**ek osatzen dute **Juan Vera** eta **Daniel Cúparo**ren komedia honetako aktore zerrenda, **Juan Luis Iborra**ren zuzen-daritzapean.

Alfi y Fideo son amigos de toda la vida, pero no pueden ser más diferentes: Alfi es un publicista separado y con un hijo al que apenas ve que rehuye de cualquier compromiso afectivo, a excepción de Alexa... su casa inteligente. Fideo, en cambio, es un psiquiatra muy conservador en sus costumbres y afectos, casado hace más de 25 años con su primera novia. Una noche, poco después de separarse de su mujer, Fideo va a ver a Alfi en busca de consuelo. Para ayudarlo, Alfi arma un plan para presentarle mujeres que Fideo acepta a regañadientes. Así, cuatro mujeres reales y una virtual, les van a hacer descubrir el lugar central que las mujeres han tenido en sus vidas.

Inmaduros es una cómica reflexión sobre las nuevas y variadas formas que tiene el ser humano de relacionarse.

Silvia Vacas y **Arianna Aragón** cierran el reparto de esta comedia de **Juan Vera** y **Daniel Cúparo**, bajo la dirección de **Juan Luis Iborra**.





BADAKIZU PLASTIKOZKO LOREAK EZ DIRELA INOIZ BIZI IZAN, EZTA? SABES QUE LAS FLORES DE PLÁSTICO NUNCA HAN VIVIDO, ¿VERDAD?

AITZIBER GARMENDIA, TELMO IRURETA, MIREIA GABILONDO

Uztaila 08 - 13 Julio

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

26 € / 20 €

8 - 10: ● euskara / 11 - 13: ● castellano

Hiru aktore daude (baina lau pertsonaia), Luciak identitate disoziatuaren nahasmendua baitu, hau da, nortasun anizkoitza. Horrenbestez, Yoldi ere aipatu behar dugu ezinbestean, Luciaren beste "ni" edo identitatea, Luciak duen traumagatik desgaitasun intelektualak dituen emakume gisa bere buruarentzat sortutako nortasuna. Beste bi pertsonaia ere badaude, adimen artifizialak badira ere: Alexa eta Emanuel. Martina, berriz, psikiatra da. Misanthropo samarra da, eta ezin du gehiago. Ezin dio bizitzari aurre egin. Ez da Lucia alabari laguntzeko gai. Amore emango al du? Agian, bai.

Jakina, hiruretako, barkatu, lauretako inork ez daki gainerakoei zer gertatzen zaien, ezta haien etsipenak eta sekretuak zein diren ere. Hala ere, bada zer-bait ukaezina: bizitza honetan gertatu zaien onena elkar ezagutzea eta beren bideak gurutzatzea izan da.

Hay tres actores (aunque cuatro personajes) porque Lucía sufre de trastorno de identidad disociativo, más conocido como personalidad múltiple; por lo que hay que hablar de Yoldi, el otro "yo" de Lucía que, por el trauma que tiene Lucía, se ha creado como una mujer con discapacidades intelectuales. Hay otros dos personajes, aunque sean Inteligencias Artificiales: Alexa y Emanuel. Martina, psiquiatra, un pelín misántropa, que no puede más. No puede con la vida. No es capaz de ayudar a su hija Lucía ¿Va a tirar la toalla? A lo mejor, sí.

Por supuesto, ninguno de los tres, perdón, cuatro, sabe nada de lo que le sucede al resto, ni de sus desilusiones y ni de sus secretos; pero hay algo impecinable: que lo mejor que les ha pasado en esta vida ha sido conocerse y que sus caminos se cruzaran.



ACERO 2.0

MAGO ORBIT

Uztaila **10 – 13** Julio

Victoria Eugenia

20:00

32 € / 26 € / 20 €

● castellano

Orbit magoak irudimenaren mugei erronka botatzen die, magia espektakulu bat zer den birdefinituz, errealitateak eta fantasiak bat egiten duten eta ezinezkoa posible bilakatzen den mundu bat deskubrituz.

Acero 2.0 formatu eta inpaktu handiko ilusionismo saio apartekin osatutako showa da, ikus-entzulea harrituko duena argien diseinuaren eta soinu bikainaren eskutik. Erditik moztutako emakumea, ezinezko agerpen eta desagerepenak... eta agertoki baten gainean munduan inoiz ikusi gabeko ilusionismo ikusgarri paregabeena!

El Mago Orbit desafía los límites de la imaginación y redefine lo que significa un espectáculo de magia, descubriendo un mundo en el que la realidad y la fantasía se fusionan y lo imposible se hace posible.

Acero 2.0 es un show de Ilusiones de gran formato y alto impacto que sorprenderá por sus magníficas ilusiones, diseño de luces y excepcional sonido. Números como el de la mujer cortada, apariciones y desapariciones imposibles y una gran ilusión única en el mundo nunca antes vista sobre un escenario.





EGO

EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA

Uztaila 15 Julio

Victoria Eugenia

19:30

15 € / 10 €

Diego Martin-Etxebarria, zuzendaria **director**

Egitaraua Programa:

Fanfare for the Common Man. 35, A. Copland

Luur (Erabateko estreinaldia **Estreno absoluto**), J. Esnaola

5. sinfonia re minorrean *Sinfonía n.º 5 en re menor*, D. Shostakovich

Gerrak eta gatazkak ezaugarri diren egungo testuinguru honetan, programa hau bakearen aldeko keinu indartsu gisa altxatzen da, eta mezu humanista eta itxaropentsua bidaltzen du Copland eta Shostakovichen obren eskutik.

Copland-en obra esanguratsuenetakoa den *Fanfare for the Common Man*ekin obrarekin abiatuko da kontzertua. 1942. urtean sortua, obra hau herriaren nazio-izpiritua piztea helburu zuen fanfarre batzuetako parte izan zen. Copland-ek "gizon arruntari" eskaini zizkion, herritarrak egiten ari ziren borroka eta sakrifizioa omentzeko asmoz.

Ondoren, Jon Esnaola konpositore gazteak, Nestor Basterretxearen omenez idatzitako *Luur* obraren erabateko estreinaldia interpretatuko du EGOk, sonritate ilun, goibel eta ezkorreko lana.

Amaitzeko, Dmitri Shostakovichen *5. sinfoniaz* gozatuko dugu, bere obra esanguratsuenetakoa den lan mugari bat da XX. mendeko musikan. Sinfonia honetako gai bakoitzak istorio txiki bat du baitan; Beethovenen *Bederatzigarren sinfoniatik* hasiz eta tentsioz beteriko itxaropena azaltzen duen amaiera loriatsuarekin bukatzeko.

En el contexto mundial actual, marcado por guerras y conflictos, este programa se alza como un poderoso gesto en favor de la paz, y lanza un profundo mensaje humanista y esperanzador, protagonizado por las obras de Copland y Shostakovich.

El concierto se abrirá con *Fanfare for the Common Man*, una de las obras más icónicas de Aaron Copland. Compuesta en 1942, en plena Guerra Mundial, esta pieza formó parte de una serie de fanfarrias concebidas para elevar el espíritu patriótico en tiempos de guerra. Copland la dedicó al "hombre común" como homenaje a la lucha y el sacrificio de la ciudadanía.

A continuación, la EGO llevará a cabo el estreno absoluto de *Luur*, del joven compositor Jon Esnaola, dedicada a la memoria de Néstor Basterretxea; obra de sonoridad oscura, sombría y lúgubre.

Finalmente, disfrutaremos de la *Sinfonía n.º 5* de Dmitri Shostakovich, una de sus composiciones más emblemáticas y un hito en la música del siglo XX. Cada tema de esta sinfonía encierra una pequeña historia, comenzando con un homenaje a la *Novena Sinfonía* de Beethoven y culminando con un final glorioso que irradia una esperanza cargada de tensión.

MARCUS KING BAND

2025 EUROPEAN TOUR

Uztaila 16 Julio

Victoria Eugenia

19:30

41 € / 39 € / 35 €

Marcus King (gitarra **guitarra**, ahotsa **voz**), **Drew Smithers** (gitarra **guitarra**), **Jack Ryan** (bateria **batería**), **Mike Runyon** (teklatuak **teclados**), **Eric Vogel** (baxua **bajo**)

Marcus Kingek zintzotasunez aurre egiten die atsekabeari, adikzioari eta osasun mentalari bere musikan. Bere ahotsaren bibratoari min dardaratia dario, eta alkoholetan blaitutako damuz eta hotel bakartietan egindako akatsez beteta daude bere esatekoak. Greenvilleen (Hego Carolina) jaio eta Grammy sarirako izendatua izan den laugarren belaunaldiko musikari hau zortzi urterekin hasi zen gitarra jotzen, aita eta aitona gitarristen urratsei jarraituz. The Marcus King Band gisa milaka kilometro egin ditu errepidean, eta interpretazio-trebetasun paregabea erakutsi du.

Mood Swings azken albumean, badirudi haragi bizitan atera duela bere arima Kingek bere baitatik bihotz hautsi horren bitartez eta diskoan islatu duela.

Marcus King se enfrenta con honestidad a la angustia, la adicción y la salud mental en su música. El dolor tiembla bajo el vibrato de su voz y sus palabras están cargadas de arrepentimientos bañados en alcohol y errores cometidos en hoteles solitarios. De cuarta generación de músicos, este músico nacido Greenville (Carolina del Sur) y nominado a un premio Grammy empezó a tocar la guitarra a los ocho años siguiendo los pasos de su padre y su abuelo, que también fueron guitarristas. Con miles de kilómetros recorridos en la carretera como The Marcus King Band, ha demostrado una destreza interpretativa sin igual.

En su álbum *Mood Swings*, parece que King se ha sacado el alma en carne viva directamente de sus adentros a través de ese corazón roto y que lo ha plasmado en el disco.





60. DONOSTIAKO JAZZALDIA

Uztaila **19 - 27** Julio

Trinitate plaza, Kursaal, Victoria Eugenia, San Telmo Museoa, Chillida Leku...

Jazzaldiak bere 60. edizioa artista handiekin eta programazio anitzarekin ospatuko du. Doako eta ordainpeko kontzertuak izango dira, 12 agertokitan banatuta. Nazioarteko izar handiak, hala nola, Jamie Cullum, bi kontzerturekin; The Beach Boys, Kutxabank Kursaal Auditorioan; Brad Mehldau bikaina, Trinin; Marc Ribot, hiru talde ezberdinekin; Dee Dee Bridgewater abeslari aparta; Hermeto Pascoal brasildarra; Dave Holland eta Chris Potter bezalako bi legenden elkartzea; Kurt Elling abeslari zoragarria The Yellowjackets taldearekin... Formatu txikiko harribitxiak ere izango dira San Telmo Museoko klaustroan: Baptiste Trotignon, Bojan Z eta Pierre de Bethman pianistak; Mark Ribot gitarraista; eta Kirk Knufke kornetista Ray Anderson tronboi jotzailearekin batera.

Proposamen autoktonoak ere izango ditugu, esaterako, Baskolombia deitzen den Oreka TXren eta Phonoclóricaren proiektu interesgarria, Iñaki Salvador eta Marco Mezquida pianista apartak elkarrekin Chillida Lekun, Anari, Bulego eta edizio honetarako hautatutako 10 Tokiko Taldeak. Horrez gain, JazzEñeren XI. edizioa, Txikijazzen XIII. edizioa eta aire zabaleko doako 40 kontzertu baino gehiago izango dira.

El Jazzaldia celebrará su 60ª edición con grandes artistas y una programación variada, que incluirá conciertos gratuitos y de pago, repartidos en 12 escenarios. Grandes estrellas internacionales como Jamie Cullum, con dos conciertos; The Beach Boys, en el Kutxabank Kursaal Auditorio; el genial Brad Mehldau, en la Trini; Marc Ribot, con tres formaciones distintas; la extraordinaria cantante Dee Dee Bridgewater; el brasileño Hermeto Pascoal; la unión de dos leyendas como Dave Holland y Chris Potter; el fantástico cantante Kurt Elling, acompañado por The Yellowjackets... También habrá joyas en pequeño formato en el claustro del San Telmo Museoa, como los pianistas Baptiste Trotignon, Bojan Z y Pierre de Bethman, el guitarrista Mark Ribot y el cornetista Kirk Knufke junto con el trombonista Ray Anderson.

Asimismo, tendremos propuestas autóctonas como el interesante proyecto vasco-colombiano de Oreka TX y Phonoclórica llamado Baskolombia, la unión de dos maestros del piano, Iñaki Salvador y Marco Mezquida en Chillida Leku, Anari, Bulego y los 10 Grupos Locales seleccionados para esta edición. A todo esto se suma la XIª edición de JazzEñe, la XIIIª de Txikijazz y más de 40 conciertos gratuitos al aire libre.





QUERIDA AGATHA CHRISTIE

JUAN CARLOS RUBIO, CARMEN MORALES, JUAN MESEGUER

Uztaila **30 - 31** Julio
Abuztua **01 - 03** Agosto

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

26 € / 20 €

● castellano

Tenerifeko Taoro hoteleko gelan da Agatha eta beste gau bat pasatzen ari da esna. Bere senarrarekin hautsi izanaren mamuek eta bere amaren orain-tsuko galerak arrasto sakona utzi dute errealitateaz duen pertzepzioan. Prest dago erokeria bat egiteko eta Ingalaterratik ekarri duen pozoiz ahalmentu bat irensteko. Horrela utziko dio behingoz sufritzeari.

Gizon dotore baten ustekabeko bisitak bere planak eten egiten ditu. Benito da, hotel berean dago eta idazlea da. Abizenak: Pérez Galdós. Zarata bitxiak entzun ditu eta dena ondo dagoela egiaztatu nahi du. Bi jeinu horien artean lotura elektrizatzaile eta dibertigarri bat ezartzen da berehala, non sekretuak, fobiak, gezurak, desioak eta frustrazioak argitara ateratzen diren. Agatharen planak aldarazi eta haren bizitza salbatzeko gai ote da Benito?

Agatha, en la habitación del Hotel Taoro de Tenerife, en el cual se hospeda, se enfrenta a una nueva noche en vela. Los fantasmas de la relación rota con su marido y la reciente pérdida de su madre han causado una profunda mella en su percepción de la realidad. Está dispuesta a cometer una locura e ingerir un potente veneno que ha traído de Inglaterra. Así dejará de sufrir de una vez por todas.

La inesperada visita de un elegante caballero interrumpe sus planes. Él es Benito, también se aloja en el hotel y es escritor. Sus apellidos: Pérez Galdós. Ha escuchado extraños ruidos y quiere comprobar que todo está en orden. Entre ambos genios se establece inmediatamente una electrizante y divertida conexión en la que salen a la luz secretos, fobias, mentiras, deseos y frustraciones. ¿Será Benito capaz de alterar los planes de Agatha y salvar su vida?





URTAROAK LAS ESTACIONES LES SAISONS MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Uztaila **31** Julio
Abuztua **01 - 03** Agosto

Victoria Eugenia

20:00

32 € / 24 € / 20 €

Château de Versailles Spectaclesen zuzendari Laurent Brunnerren eta biolinista eta Versaillesko Errege Operako musika zuzendari nagusi Stefan Plewniak en ideia batean oinarritua, ballet honek Antonio Vivaldiren *Lau urtaroak* famatuak eta haren herrikide eta garaikide Giovanni Antonio Guidoren *Urteko lau sasoiak*, ia ezagutzen ez direnak, elkartzen ditu.

Azken batean, dena fantasia poetikoz hornitzeko, esentziala laburbiltzen duten bi termino. Zeruertzean barreiatutako petalo beltzezko dekoratu batean, izaki hegodun batzuek espirituaren eta argitasunaren hileta-segizioa daramate. Zergatik? *Urtaroak* balleta besterik ez delako, eta sinesgaitza baino gauza serioagorik ez dagoelako.

Basado en una idea de Laurent Brunner, director de Château de Versailles Spectacles, y de Stefan Plewniak, violinista y principal director musical de la Ópera Real de Versalles, este ballet fusiona las celebérrimas *Las cuatro estaciones* de Antonio Vivaldi y *Las cuatro estaciones del año* de su contemporáneo y compatriota Giovanni Antonio Guido, prácticamente desconocidas.

En definitiva, para dotarlo todo de fantasía poética, dos términos que resumen lo esencial. En un decorado de pétalos negros diseminados por todo el horizonte, unos seres alados portan el cortejo fúnebre del espíritu y de la claridad. ¿Por qué? Porque *Las Estaciones* no es más que un ballet, y no hay nada más serio que lo inverosímil.





TESTIGO DE CARGO (AGATHA CHRISTIE)

FERNANDO GUILLÉN CUERVO,
ADOLFO FERNÁNDEZ, NEREA MAZO

Abuztua 06 - 10 Agosto

Victoria Eugenia

20:00

29 € / 24 € / 20 €

 castellano

Londres, 1947. Iluntzean hiria lainoak hartuta dela, krimen izugarri bat gertatzen da. Alargun bakarti bat hil dute labankadaka bere luxuzko etxean. Susmagarri bakarra Leonard Vole da, hildakoarekin adiskidetasun bitxia zuen xarma handiko bizinahia.

Guztien harridurarako, Wilfrid Robarts jaunak, ospe handiko abokatu zaildu eta zorrotzak, akusatua defendatzea onartuko du. Aurrez aurre duen kasua irabazteak, hori bai, ezinezkoa dirudi.

Susmagariaren zurigarri bakarra, gainera, bertan behera geratuko da emazteak berak ere Leonard Voleren aurka lekukotasuna ematean. Romaine Vole emazteak kontatuko duenez, hilketaren gauean, senarra goizaldeko ordu txikietan itzuli zen etxera, eskuak eta arropa odolez zikinduta zituela.

Akusazioaren lekuko horren ustekabeko testigantza ostean, epaiaren zain dagoela dirudi. Aldiz, Wilfrid Robarts jaunak ez du oraindik ere azken hitza esan.

Isabelle Stoffel, Bruno Ciordia, María Zabala, Markos Marín eta José Cameánek osatzen dute **Roberto Santiagoren** bertsio honen aktore zerrenda, **Fernando Bernués**-en zuzendaritzapean.

Londres, 1947. Entre la niebla que envuelve la ciudad al anochecer, se produce un terrible crimen. Una viuda solitaria ha sido apuñalada hasta la muerte en su mansión. El único sospechoso es Leonard Vole, atractivo buscavidas que mantenía con la difunta una extraña amistad.

Para sorpresa de todos, el famoso, veterano e implacable abogado Sir Wilfrid Robarts acepta defender al acusado. Se enfrenta a un caso prácticamente imposible.

La única coartada del sospechoso se desmorona cuando su propia mujer testifica contra él. Romaine Vole, la esposa, asegura que la noche del asesinato su marido regresó a casa de madrugada con las manos y la ropa ensangrentadas.

Tras este inesperado "testigo de cargo", el juicio parece visto para sentencia. Sin embargo, Sir Wilfrid Robarts aún no ha dicho la última palabra.

Isabelle Stoffel, Bruno Ciordia, María Zabala, Markos Marín y José Cameán cierran el reparto de esta versión de **Roberto Santiago** bajo la dirección de **Fernando Bernués**.



EL CABARET DE LOS HOMBRES PERDIDOS

ISRAEL REYES

Abuztua **06 - 10** Agosto

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

29 € / 23 €

● castellano

El cabaret de los hombres perdidos ixtera doa. Bat-batean, korrikaldi batek kabaretean daudenen arreta bereganatuko du. Mutil bat korrika ihes egiten ari da: azkenean harrapatu eta kolpatu egiten dute. Hala ere, ihes egitea eta kabaretean sartzea lortuko du. Oraindik ez badaki ere, ihesak bizimodu berri batera eramango du.

Kabaretean Destino tatuatzailea eta Lullaby aurkituko ditu; zauriak sendatuko dizkiote, eta bere etorkizuna nolakoa izan daitekeen ere azalduko diote. Ihesi heldutako mutil gazteak abeslari izan nahi du, baina bestelako eskaintza bat jasoko du kabaretean. Hori da *El cabaret de los hombres perdidos* antzezlanaren abiapuntua.

Cayetano Fernández, Leo Rivera, Supremme de Luxe eta **Armando Pita** dira **Christian Siméon** eta **Patrick Laviosak** sortutako ikuskizun honen protagonistak, eta **Israel Reyes**, zuzendaria.

El cabaret de los hombres perdidos está a punto de cerrar. El ruido de una carrera alerta a los personajes que se hallan en el cabaret. Un muchacho es perseguido, alcanzado, golpeado. Aún así logra escabullirse y entrar en el cabaré. Todavía no sabe que esa persecución le ha llevado a una nueva forma de vivir.

Dentro le están esperando el Destino, un tatuador y Lullaby, que le curarán las heridas y escenificarán cómo puede ser su futuro. El muchacho quiere ser cantante, pero la oferta que recibe es diferente. Este es el punto de partida de *El cabaret de los hombres perdidos*.

Cayetano Fernández, Leo Rivera, Supremme de Luxe y **Armando Pita** conforman el reparto del espectáculo creado por **Christian Siméon** y **Patrick Laviosa**, bajo la dirección de **Israel Reyes**.



ALMACENADOS ALMAZENEAN

ZUHAITZ GURRUTXAGA

IKER GALARTZA

Abuztua 11 - 17 Agosto

Antzoki Zaharra Teatro Principal

11 - 14: **20:00**

15 - 17: **20:30**

26 € / 20 €

11 - 13: ● castellano

14 - 17: ● euskara

Erretreta hartzeko dagoen arduraduna (Iker Galartza) eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak (Zuhaitz Gurrutxaga), ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den almazen huts batean. Erlojuaren tik-tak okerra, bi ezezagunen arteko isilune deserosoa, esperoan egotearen amorrazioa, bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama... Baldintza guzti horien baitan, bi langileen arteko harremana estutzen joango da eta amankomunean daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientzia.

David Desola idazle kataluniarraren komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa egiten du. Antzerki-lan honek Hermanos Machado Saria jaso zuen 2003an.

Un encargado a punto de jubilarse (Iker Galartza) y la persona destinada a sustituirle (Zuhaitz Gurrutxaga) comparten cinco jornadas en un mismo lugar: un enorme almacén vacío donde aparentemente nunca ocurre nada. El paso del tiempo en un reloj desajustado, el incómodo silencio entre dos desconocidos obligados a compartir un espacio, la inmovilidad del almacén –en el que paradójicamente subyace la diminuta pero frenética actividad de un hormiguero–, la desesperación de la espera, el conflicto generacional entre ambos personajes, el peso de una gran mentira... Todo esto irá forjando entre ellos un vínculo inquebrantable, algo que les unirá para siempre: la conciencia de los perdedores.

Esta comedia ácida e incisiva del escritor catalán David Desola, galardonada con el Premio Hermanos Machado en 2003, reflexiona sobre la explotación laboral y el capitalismo.





PIJAMA PARA SEIS

GABINO DIEGO, JESÚS CISNEROS, AMAIA VARGAS, ISABEL GAUDÍ

Abuztua **13 - 17** Agosto

Victoria Eugenia

20:00

29 € / 24 € / 20 €

● castellano

Mercedes emaztea ama ikustera joan dela baliatuta, Fernandok Susi maitalea asteburua elkarrekin igarotzera gonbidatu du; hori bai, zurigarri bat izateko asmoz, Carlos laguna ere gonbidatu du badaezpada. Plana ezin hobe da, eta Fernandok sukaldari bat ere kontratatu du ezeren falta izan ez dezaten: Susana. Aldiz, gauzak ez dira Fernandok irudikatu bezala irtengo, eta buruan zuen gau erromantikoa gau ezin eroagoa bilakatuko da: ez direnaren plantak egin beharko dituzte guztiek, ezkututzen dutena agerian geratu ez dadin.

Pijama para seis korapiloz betetako komedia ezin barregarriagoa da, erritmo frenetikoa duena: antzerki lan ezin landuagoa aurkituko du ikusleak, bai eta barreak neurtzeko bene-benetako metronomo bat ere.

Sabrina Pragak osatzen du Descalzos Produccionesek ekoiztutako komedia honetako aktore zerrenda, eta **Marc Camoletti** da egilea.

Aprovechando que Mercedes, su mujer, tiene que ir a visitar a su madre, Fernando invita a su amante, Susi, a pasar el fin de semana con él, y también a un amigo suyo, Carlos, para tener una coartada. Todo es perfecto, incluso ha contratado una cocinera, Susana, para que no les falte de nada. Pero las cosas no le salen como él espera y la velada romántica se acaba convirtiendo en una noche muy movidita en la que todos fingen ser lo que no son para evitar ser descubiertos.

Pijama para seis es una hilarante comedia de enredos de ritmo frenético, una pieza de pura carpintería teatral y un auténtico metrónomo de las risas.

Sabrina Praga completa el reparto de esta comedia de **Marc Camoletti** producida por Descalzos Producciones.



¡AY DIOS! AHORA VENGO A POR TI

ÓSCAR TEROL

Abuztua 18 - 24 Agosto

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

26 € / 20 €

● castellano

Óscar Terol komikoak, berezko duen estiloari fidel, gaurkotasuneko gaiekin eta Donostiarekin lotutako polemikekin zipriztindutako umorezko espektakulu bat eskaintzea du asmo. Hori bai, zer gertatuko den ez dago argi, eskainitako azken funtzioetan trantzean sartu baita komikoa eta, oso goitik omen datorren norbait aritu baita hizketan aktore donostiarraren ahotik; bai, Jainkoa bera. Horrenbestez, ikuskizun honetara hurbiltzea loteria hutsa da, publikoak ez baitu jakiterik benetan zer aurkituko duen. Gauza bakarra dago ziur: Óscar Terol agertoki gainera igoko da bildutakoen artean barrea eragitea helburu. Hori bai, zer gertatuko den inkognita hutsa da, eta ikuskizunera hurbiltzen diren ausartek soilik jakingo dute...

Fiel a su estilo, el cómico Óscar Terol dará un espectáculo de humor sobre actualidad y temas polémicos donostiarras, pero esto no es seguro ya que, en las últimas funciones, ha entrado en una especie de trance y a través de él ha hablado un ser que dice venir de muy arriba, sí, Ése. Vamos, que acudir a este espectáculo es una lotería, porque el público no sabe lo que se puede encontrar. Lo que es seguro es que Terol saldrá al escenario dispuesto a hacer reír al público, lo que ocurra después, es una incógnita que solo disfrutarán los valientes que asistan al espectáculo.





ESCAPE ROOM

JOSEP MANEL CASANY, CRISTINA GARCÍA, XAVI MIRA, LARA SALVADOR

Abuztua **21 - 24** Agosto

Victoria Eugenia

20:00

23: 18:00 + 20:30

29 € / 24 € / 20 €

● castellano

Haurtzarotik lagunak diren bi bikotek hitzordu bat jarri dute elkarrekin escape room bat bisitatzeko, non eta berriki zatikatutako gizon baten gorpua edukiontzi batean agertu den auzo batean... Bildutako lau lagunek ondo pasatzeko jolas atsegin bat aurkitzea espero dute, euren adimena probatzeko eta barre egiteko aukera eskainiko dien hitzordu bat. Aldiz, gelan sartu eta atea hermetikoki ixten den unean bertan, atzerako kontaketa hasiko da: inork espero ez dituen gauza bitxiak pasatzen hasiko dira. Gelatik irtetea ez da ez erraza izango, eta jolasa bene-benetako infernu bilakatuko da, lau lagunen arteko adiskidetasuna mugara eraman eta kinkan jartzeraino.

Ez dirudien arren, *Escape room* komedia bat da: beldurrezko komedia bat!

Dos parejas de amigos de toda la vida, quedan para hacer un escape room en un barrio donde recientemente se ha encontrado, en un contenedor, el cadáver de un hombre descuartizado... Los cuatro amigos piensan que les espera un juego divertido para pasar el rato, poner a prueba su inteligencia y reír un poco. Pero en cuanto la puerta de la habitación se cierra herméticamente y empieza la cuenta atrás, empiezan a pasar cosas extrañas. Salir de ese escape room no será nada fácil y el juego se convertirá en un infierno que pondrá a prueba su amistad hasta límites insospechados.

Aunque no lo parezca, *Escape Room* es una comedia... ¡una comedia de miedo!



CAMINO A LA MECA

LOLA HERRERA, NATALIA DICENTA,
CARLOS OLALLA

Abuztua 27 - 31 Agosto

Victoria Eugenia

20:00

29 € / 24 € / 20 €

● castellano

Athol Fugard antzerkigilearen *Camino a la Meca* Helen Martinsen bizitzan oinarritutako lana da. Martinsek bere garaiko arauetara egin zien askatasunaren eta sormenaren alde egiteko, nahiago izan zituen galderak ziurtasunak baino, eta, bere garaia ez ezik, inguratzen zuen munduari ere egin zion aurre gizarteak ezarritako mugei desafio eginez.

Egokitzapen hau **Claudio Tolcachir** zuzendariak gidatu du eta norberaren ideiekin fidel izanez bizitzeak eskatzen duen ausardiaz hausnartzen du, bai eta mugak edertasuna eta esangura sortzeko aukera bilakatzeko gaitasunaz ere. Antzezle nagusia Lola Herrera da, eta Natalia Dicentak eta Carlos Olallak ere parte hartzen dute obran.

Escrita por Athol Fugard, *Camino a la Meca* está basada en la vida real de Helen Martins, una mujer que desafió las normas de su época para abrazar su libertad y creatividad, que prefirió las preguntas a las certezas y que se enfrentó a su tiempo y al mundo que la rodeaba desafiando los límites impuestos por la sociedad.

Esta adaptación, dirigida por **Claudio Tolcachir**, invita a reflexionar sobre la valentía de vivir fiel a uno mismo y la capacidad de transformar las limitaciones en oportunidades para crear belleza y significado. El elenco está encabezado por Lola Herrera a quien acompañan Natalia Dicenta y Carlos Olalla.





UNA HERMANA PARA TRES HERMANOS

PABLO PUYOL, VIRGINIA MUÑOZ,
MIGUEL Á. MARTÍN, NOEMÍ RUIZ

Abuztua **28 - 31** Agosto

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

26 € / 20 €

● castellano

Pertsonaiek aita hil ondoren sortutako enigma eta arazoak konpondu beharko dituzte: milioi askoko herentzia batek anaia-arreben arteko gatazkak sortuko ditu, are gehiago inork ezagutzen ez zuen arreba bat agertzen duenean eta gainontzekoek oinordetzan espero zuten dirutza arriskuan jartzen duenean. Elementuokin, protagonistak mugara eramango dituen espero gabeko gatazka batean murgilduko dira.

Álvaro Carreterok sortu eta zuzendutako familia baten inguruko komedia koral honetan anaia-arreben arteko adostasun eta desadostasunak dira ardatz.

Los personajes, hermanos entre sí, tendrán que resolver el enigma y los problemas que surgen tras el fallecimiento del padre: una herencia millonaria que hace que salten las chispas y la aparición de una hermana secreta, que pondrá en jaque el reparto de la fortuna que debían heredar. Con estos elementos, los personajes se verán envueltos en un tira y afloja que les lleva a situaciones límites.

Una comedia coral de situación creada y dirigida por **Álvaro Carretero** que trata sobre la familia en sus encuentros y desencuentros.



SE ALQUILA

ANDONI FERREÑO, AGUSTÍN BRAVO

Iraila **03 - 07** Septiembre

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

06: 19:00 + 21:30

26 € / 20 €

● castellano

Rafaren eta Anderren gorabeherak kontatzen dituen komedia dibertigarria da *Se alquila*. Rafa 60 urte inguruko gizonezko bat da, bere betiko etxea utzi eta margolari izateko alokairuzko pisu bat bilatzen saiatzen ari dena; Ander, berriz, langabezian den adin bereko antzezlea da, Rafari logela bat alokatzea erabakitzen duena. Euren eguneroko bizitza berrian, espero gabeko egoerak sortzen hasiko dira, guztien irribarre eta dibertimendurako.

Se alquila komedia zoro bat da, ezer dirudiena ez den gizarte batean, bi norbanako oso identifikagarriren gorabeherak kontatzen dituen.

Se alquila es una divertida comedia que narra las peripecias de Rafa, un hombre de unos 60 años que toma la decisión vital de abandonar su hogar e intentar encontrar un piso de alquiler para desarrollar su carrera de pintor, y Ander, un actor en paro de su misma edad que le alquila una habitación. Durante su vida cotidiana, comienzan a suceder situaciones imprevistas que crean momentos de risa y diversión.

Se alquila es una delirante comedia con personajes muy identificables en una sociedad donde nada es lo que parece.





SÓLO WHITNEY

CRISTINA RAMOS

Iraila **05 - 07** Septiembre

Victoria Eugenia

20:00

35 € / 30 € / 25 €

● castellano

Cristina Ramosen ahots izugarriaren eskutik, ikus-entzuleek eksklusiboki poparen historiaren emakumezko ahots garrantzitsuenaren abestiek osatuko duten kontzertu batean murgiltzeko aukera izango dute. Musika ikuskizun ikaragarri batean, Cristinak Whitney Houstonen erreperitorio exijenteari egingo dio aurre.

Bizi itzazu Houstonen arrakasta nagusienak Cristina Ramosen ahotsean: *I Wanna Dance with Somebody, I Will Always Love You, One Moment in Time...* Nola galduko duzu Whitney Houstonen abesti entzutetsuenak beste ahots pribilegiatu baten eskutik gogora ekartzeko aukera?

Ikuskizunaren zuzendaritza eszenikoaren arduraduna **Mingo Ruano** koreografo, aktore eta dantzaria da, Espainiako eszena-zuzendari preziatuenetako bat. Zuzendaritza musikala, berriz, **Iván Prada**ren esku dago, besteak beste, Tamara, Edurne, Chambao eta Mastodonte bezalako artistekin birak egin dituen musikaria.

La increíble voz de Cristina Ramos presenta este concierto integrado exclusivamente por canciones de la voz femenina más importante de la historia del pop. Todo un espectáculo musical en el que Cristina se medirá al exigente repertorio de Whitney Houston.

Vive algunos de los éxitos de Houston como *I Wanna Dance with Somebody, I Will Always Love You o One Moment in Time* bajo la voz de Cristina Ramos ¿Cómo resistirse a revivir los grandes éxitos de Whitney Houston en otra voz privilegiada?

El espectáculo gira bajo la dirección escénica del coreógrafo, actor y bailarín **Mingo Ruano**, uno de los directores de escena más cotizados del país, y la dirección musical del guitarrista **Iván Prada**, que ha girado con artistas como Tamara, Edurne, Chambao y Mastodonte, entre otros.



ARIZONA

AITZIBER GARMENDIA, JON PLAZAOLA

Iraila **08 - 14** Septiembre

Antzoki Zaharra Teatro Principal

20:00

26 € / 20 €

08 - 10: ● castellano

11 - 14: ● euskara

Georgek eta Margaretak beren mugak defendatu behar dituzte. Bizilagunak hor daude, zelatan, deskuidurik txikienean noiz gurutzatuko zain... Baina adi egon behar dute, ezin dute guardia jaitsi.

Halako batean, Margaret galdera asko egiten hasiko da, gehiegi...eta beraien bitzta komikoa guztiz aldatzen hasiko da....

Juan Carlos Rubioren testuak mugei, migrazioari, giza ergelkeriari eta manipulazioaren mugei buruzko gogoeta egiten du, bizitzaren basamortuan galdu-tako bi gizakiren arimaren erretratu tragikomikoa izateaz gain.

George y Margaret deben defender sus fronteras. Los vecinos están ahí, acechando, esperando a cruzar al mínimo descuido.... Pero, deben estar atentos, sin bajar la guardia.

Pero cuando Margaret comienza a hacer demasiadas preguntas, su vida cómica empieza a cambiar por completo...

El texto de **Juan Carlos Rubio** reflexiona sobre las fronteras, la migración, la estupidez humana y los límites de su manipulación, además de ser un trágico-cómico retrato del alma de dos seres humanos perdidos en el desierto de la vida.





LOS GAVILANES

SASIBILL

Iraila **13-14** Septiembre

Victoria Eugenia

19:00

38 € / 28 € / 20 €

Peru luzaro egon ondoren, Juan bere jaioterrira itzuliko da, zahar baina izugarri aberats. Itzuleraren ospakizunean, Juanek bere abiatzearen benetako arrazoia aitortuko du: emakume baten maitasuna, Adriana. Bere aspaldiko maitasunarekin, Adrianarekin, berriz topo egitean, Juanek haren alaba gaztea ezagutuko du, Rosaura. Neska hartaz maiteminduta dago sekretupean, eta, beharbada, amarengan aurkitu ez zuen gazte-edertasunaren bila dabil. Herrixkan horretaz konturatzen direnean, eskandalua ikaragarria da eta indianoaren adiskide min zirenek etsaitzat hartu eta arbuiatu egingo dute.

Amparo Navarro, Antonio Torres, Facundo Muñoz, Estibaliz Arroyo abeslariak aktore talde zabalarekin eta **Sasibill Orkestra eta Abesbatzarekin** ari-tuko dira, **Arkaitz Mendozaren** zuzendaritzapean.

Tras una larga estancia en el Perú, Juan vuelve a su aldea natal, viejo pero inmensamente rico. En la celebración de su regreso, Juan confiesa la verdadera razón de su partida: el amor de una mujer, Adriana. En el reencuentro con su antiguo amor, Adriana, Juan conoce a la joven hija de esta, Rosaura, de la que cae enamorado en secreto, quizá buscando en ella la belleza juvenil que no encontró en su madre. Cuando en la aldea caen en la cuenta de esto, el escándalo es mayúsculo y quienes se habían mostrado amigos íntimos del indiano se declaran ahora enemigos y le desprecian.

Amparo Navarro, Antonio Torres, Facundo Muñoz, Estibaliz Arroyo y un amplio reparto de actores y cantantes actuarán junto a la **Orquesta y Coro Sasibill**, dirigidos por **Arkaitz Mendoza**.



HAYDEN PEDIGO

DKluba

Iraila 26 Septiembre

Imanol Larzabal (Lugaritz)

19:30

18 € / 15 €

Hayden Pedigok *The Happiest Times I Ever Ignored* (2023) aurkeztuko du, estudioko seigarren diskoa eta bigarrena Mexican Summer zigiluarekin. Lan hau gitarra akustikoz idatzitako soinu-film bat da, 31 urteko artista multifazetiko bat duena protagonista: performerra, politikaria, modeloa eta *finger-picking*aren maisua.

Diskoko pieza bakoitza hasieratik amaierara saio bakarretan konposatu eta obsesiboki entseatu zuen. Egun bakar batean Pulp Arts-en (Florida) grabatua musikari laguntzaile talde batekin, albumak zehaztasun teknikoa eta emozio intimoa uztartzen ditu. Gitarra nukleoa dira, sintetizadore, steel guitar eta piano geruza leunekin, paisaia argitzen dutenak esentzia akustikoari protagonismorik kendu gabe.

Hayden Pedigo presenta *The Happiest Times I Ever Ignored* (2023), su sexto álbum de estudio y el segundo bajo el sello Mexican Summer. Este trabajo es una película sonora escrita con guitarra acústica, protagonizada por un artista multifacético de 31 años: performer, político, modelo y maestro del fingerpicking, cuya creatividad desborda en cada nota.

Cada pieza del disco fue compuesta de principio a fin en sesiones únicas y luego ensayada obsesivamente. Grabado en un solo día en Pulp Arts (Florida) junto a un equipo de músicos de apoyo, el álbum combina precisión técnica y emoción íntima. Las guitarras son el núcleo, acompañadas de suaves capas de sintetizadores, steel guitar y piano, que iluminan el paisaje sin robar protagonismo a la esencia acústica.





LASTER PRÓXIMAMENTE



Urria **02** Octubre

THE DELINES MR. LUCK & MS. DOOM

Victoria Eugenia Club

19:30

18 €



Azaroa **20** Noviembre

DESTROYER DAN'S BOOGIE

Victoria Eugenia

19:30

25 €



Otsaila **07** Febrero / **2026**

PACO IBÁÑEZ ÉRASE UNA VEZ

Victoria Eugenia

19:30

45 € / 40 € / 35 €



**DONOSTIAKO
KULTURZALEEN
KLUBA**
CULTURA
MUY A MANO

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
Gogokoak, gomendioak, zozketak,
deskontuak eta askoz gehiago**

¡HAZTE SOCIA/O!
Favoritos, recomendaciones, sorteos,
descuentos y mucho más

WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS/BAZKIDEAK

SALMENTA LEKUAK PUNTOS DE VENTA

ONLINE

www.donostiakultura.eus/sarrerak
dkssarrerak@donostia.eus

VICTORIA EUGENIA

Argentina Errepublikak, 2
Tel. 943 481 818
vea_taquilla@donostia.eus
11:30-13:30 / 17:00-20:00

Itxita Cerrado:

Uztaila 20 Julio

Iraila 28 Septiembre

IMANOL LARZABAL (LUGARITZ)

Heriz, 20 / Tel. 943 310 780
lugaritzkulturetxea@donostia.eus

**Leihatila emanaldia hasi baino or-
dubete lehenago zabalduko da.**

La taquilla abre una hora antes del
inicio del espectáculo.

ANTZOKI ZAHARRA T. PRINCIPAL

Kale Nagusia, 1 bis
Tel. 943 481 970
az_taquilla@donostia.eus

As-Os L-V: 11:30-13:30

Ikuskizuna dagoen egunetan

Los días de función

11:30-13:30 / 17:00-20:00

Itxita Cerrado:

Uztaila 7, 14 - 28 Julio

Abuztua 4, 25 Agosto

Iraila 1, 15, 28, 29 Septiembre

DESKONTUAK DESCUENTOS

%10

Donostia Kulturaren ikuskizun guztietan

En todos los espectáculos de Donostia Kultura

- **Donostia Kulturako bazkideak** Socias/os de Donostia Kultura

Leihatilan eta webgunean (bi sarrera ikuskizun bakoitzeko)

En taquilla y online (dos entradas por espectáculo)

- **Langabetuak** Personas en paro

- **30 urtetik beherakoak** Menores de 30 años

- **Pentsiodunak eta 65 urtetik gorakoak** Pensionistas y mayores de 65

Leihatilan bakarrik (sarrera bat ikuskizun bakoitzeko)

Solo en taquilla (una entrada por espectáculo)

%20

- **Taldeak** Grupos

Informazio gehiago Más información:

vea_taquilla@donostia.eus / 943 48 18 18

ORDU GAZTEA HORA JOVEN

**30 urtetik beherakoek sarrerak 3 eurotan erosteko eskaintza hainbat emanalditan
Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharrean, emanaldia hasi aurreko ordu erdian.**

Entradas a 3 euros para menores de 30 años en el Teatro Victoria Eugenia
y Teatro Principal, media hora antes del inicio del espectáculo.

Leihatilan bakarrik Sólo en taquilla

DESKONTUAK ETA ESKAINTZAK EZ DIRA BATERAGARRIAK.

LOS DESCUENTOS Y OFERTAS NO SON ACUMULABLES.